



FAQ

1. Egin behar al dut ezer sistema berrian hasteko?

Ez. Balizko izangaia izateko dei egin behar dizugun lehen eskaintzan, SMS bat jasoko duzu, eta horrek webgunera eramanen zaitu, zure helbide elektronikoa erregistratu dezazun, eskaintza jaso ahal izateko. Ordura arte ez duzu ezer egin behar.

2. Noiztik hasiko da sistema berria?

Ekainaren 22tik aurrera, asteartearekin.

3. Zein gailu motetatik sar naiteke?

Pc, eramangarri edo Tablet batetik sar zaitezke, edo edozein telefono adimendun erabilia. Interneterako sarbidea besterik ez duzu behar.

4. Beharrezkoa al da ziurtagiri digitala edukitzea?

Ez da ziurtagiri digitalik behar. Eskaintza bakoitzarekin batera igortzen dizugun esteka bidez edo herritar karpetatik sar zaitezke. Zuk aukeratu.

5. Jarraituko al didate telefonoz deitzen deietarako? Eskatzen ahal dut telefonoz deitzen jarrai diezadatela?

Sistema berriaren bidez jasotako lehen eskaintzatik aurrera, zure zerrendaren kudeaketa beti telematikoa izanen da zuretzat eta izangai guztientzat.

Sistema pentsatuta dago kontratuak aldi berean eskaintzeko zerrendako guztiei, prozesuak luza ez daitezen. Horrela ekiditen baita baten erantzunaren zain egon beharra hurrengoari deitzeko, izan ere, horrek egunak eta are asteak luzatzen zituen prozesua. Eskaintza telematiko bakarra jakinaraziko da, eta ez da bateragarria izanen dei partikularrekin.

6. Nola izanen dut kontratuaren ezaugarrien berri?

Eskaintzak honako datu hauek jasoko ditu: esperotako iraupena, kontratu mota, plaza-zenbakia, lanpostuaren kokapena eta erabakitzeko behar duzun guztia. Sistema objektiboagoa da eta gutxiago eraginen dute interpretazioek edo komunikazio-akatsek.



7. Nire zerrendako eskaintza guztiak helarazi behar dizkidate?

Zerrendak oso luzeak badira, libre dauden zerrendako lehen pertsonei igorriko zaie eskaintza, eta horrela lanpostua eskuratzeko benetako aukerarik ez dutenek ez dute zertan izena eman. Ez bada betetzen, hurrengo izangai-taldeari igorriko zaio.

Zerrenda laburretan, bai, pertsona guztiei igorriko zaie.

8. Lanpostuak erantzun-ordenaren arabera esleituko dira?

Ez. Esleipena zerrendaren ordenaren arabera eginen da, indarreko arauekin bat.

9. Ba al dut eskaintza bati egindako erantzuna aldatzeko aukerarik?

Bai, betiere eskaintzan izena emateko epea amaitu ez bada. Behar beste alditan aldatzen ahal duzu erantzuna.

10. Emandako helbide elektronikoa edo telefona aldatzen ahalko ditut?

Bai, eskaintzak kudeatzeko webgunean bertan egiten ahalko duzu. Behar beste alditan.

11. Zer gertatzen da ez badiot eskaintzari erantzuten? Ezespentzat joko da?

Hala ezespeneen nola ez ez-erantzunen ondorioak jasota daude Udalaren eta sindikatuen artean hitzartutako araudiaren kasu guztietan; hitzarmena webgunean irakur daiteke.

12. Zer gertatzen da eskaintza igortzeko unean ez badut estaldurarik?

Gauza bera gertatzen zen estaldurarik gabe telefono-deia hartzen ez zenuenean. Baina orain, estaldura berreskuratu orduko jasoko duzu mezua eta eskaintzari edozein ordutan ematen ahalko diozu erantzuna. Hobekuntza da, orain dena webgunean edukiko duzulako eta gehien komeni zaizunean erantzunen duzulako. Baita lanekoak ez diren orduetan ere.